


# Krisi sozioekologikoaren islaren aurrean

## EDUKIA:

Krisi klimatikoaz, biodibertsitatearen krisiaz, ozeanoen kutsaduraz eta abarrez hitz egiten dugu. Orain krisi ekonomikoa dugu eta osasun-krisia pasatzen ari gara.

Krisiak sistemikoak dira, ez koiunturalak. Neurri batean, gizakiaren eta inguratzen duen ingurunearen arteko harremanen desoreka gero eta handiago batean oinarritzen dira, natura barne.

Sektore bakoitzak pentsatu behar du nola egokitu eta nola egin aurre krisi interdependente horiei. Baina harago joan eta gizabanako eta gizarte gisa politika publiko eta pribatuen bidez adierazten ari garen balioei begiratu behar diegu, gure lehentasunei eta eguneroko ohiturei begiratu behar diegu.

Balioei buruz ari garenean, bada konpondu behar dugun polaritate bat: balio pribatuak *versus* gizarte-balioak; balio ekonomikoak *versus* gizarte-balioak.

Aldi berean, berriz neurtu behar ditugu ekonomia benetan jasangarri eta inklusiborako bidean aurrera egitea eragozten duten balio menderatzaile ekonomistak (horixe da urgentziazkoa), eta berriro bultzatu behar ditugu gizartean ezkutuan dauden balioak (adibidez, elkarrekikotasuna, elkartasuna, errespetua, etab.), epe ertainera sistema sozio-ekonomikoa eraldatzea ahalbidetuko dutenak, naturaren muga biofisikoekin bat etorriz,

,. **INFORMAZIO GEHIAGO:**

- https://www.bbc.co.uk/programmes/w3csydct
- https://www.elsaltodiario.com/cambio-climatico/unai-pascual-manifiesto-euskal-herria-covid19-cientifico-debe-tomar-partido-es-nuestra-responsabilidad
- https://www.elcorreo.com/sociedad/salud/cientificos-vascos-abren-20200512004805-nt.html
- https://www.naiz.eus/eu/actualidad/noticia/20200101/deberiamos-disenar-ya-una-asamblea-ciudadana-por-el-clima
- https://www.agenciasinc.es/Entrevistas/La-biodiversidad-es-el-seguro-natural-de-la-vida-sin-ella-no-existiriamos